

Seamos refugio: vías seguras y legales ya

Hoy es el Día Mundial de las Personas Refugiadas.

Urge recordar un problema que todas enfrentamos pero que no nos afecta a todas por igual: el **grave impacto** que ha tenido la pandemia **de la COVID-19 en el aumento de las desigualdades, la pobreza, el racismo y la xenofobia, y el recrudecimiento de las políticas de cierre y militarización de las fronteras**. Muchas personas con necesidades de protección internacional están quedando atrapadas en zonas de origen donde su vida está en riesgo y en zonas de tránsito en condiciones muy precarias. Muchas personas han perdido su vida en el camino a Europa y lo seguirán haciendo si siguen sin habilitarse vías legales y seguras.

La **peligrosidad de los tránsitos irregulares** hace el viaje para muchas de ellas aún más peligroso, exponiéndolas a las redes de tráfico y de trata con fines de explotación sexual. A falta de vías legales y seguras, las mujeres asumen mucha violencia sobre sus cuerpos, que se convierten en peaje para poder avanzar.

El **Mediterráneo** sigue siendo una de las fronteras más mortíferas del mundo. Debido al férreo control que la UE ejerce en las fronteras del norte de África, **se ha reactivado además la ruta más peligrosa**: el pasado año 1 de cada 4 personas que llegó por vía marítima a Europa lo hizo a través de Canarias. El recuento de personas fallecidas ya alcanza las 850. Muchas de quienes sí consiguieron llegar al Archipiélago han permanecido en condiciones de extrema precariedad durante meses. Sólo en semanas recientes se han empezado a agilizar los traslados a la península.

La precariedad y conculcación de derechos humanos es también muy grave en el resto de la **Frontera Sur**. Tras un año de disminución importante de llegadas, la entrada repentina de 8.000 personas a Ceuta, alentada por el Gobierno marroquí, evidencia la **instrumentalización de las personas migrantes y refugiadas** –adultas y niñas- al servicio de intereses políticos y comerciales.

El pasado año, **80.000 personas** (un 25% menos que en 2019) **solicitaron protección internacional en el Estado español**. Casi la mitad, el 47% fueron mujeres. **3.085** personas solicitaron protección internacional **en Euskadi**, un 36% menos que en 2019.

La mayoría de las respuestas volvieron a ser negativas, con tasas de reconocimiento muy por debajo de la media europea: **el 95% de las personas refugiadas vieron denegada su solicitud de asilo**.

Debido a la política sistemática de denegación del asilo y a la situación social y laboral, la **frontera de Euskadi con Francia**, se ha convertido en una opción para migrantes y solicitantes de asilo, que deciden seguir su ruta hacia el norte para cumplir su proyecto migratorio en otros países de Europa. A causa de los controles fronterizos terrestres, que se practican por perfil étnico -lo que constituye una violación de los tratados de libre circulación- y del miedo que estos provocan, hay personas que están optando por intentar cruzar el Bidasoa **a nado; opción muy peligrosa que este año ya se ha llevado dos vidas**.

Por todas estas vidas perdidas, las personas varadas, devueltas ilegalmente y las que sufren situaciones de exclusión social,

REIVINDICAMOS:

- Reivindicamos que la **pandemia mundial no se convierta en un motivo** más para justificar la **militarización de las fronteras**.
 - Urge terminar con una **política de fronteras al servicio de los intereses económicos de los países receptores**, que deja a muchas personas varadas tanto en países de origen como de tránsito, donde sus derechos humanos no son respetados.
 - Urge terminar con la **instrumentalización de las personas migrantes y refugiadas**, que son utilizadas como herramienta de presión política.
- Reivindicamos que las **personas migrantes y refugiadas puedan llegar tanto al Estado español como a Euskadi** sin poner su vida en riesgo.
 - Urge **incrementar las vías legales y seguras** de acceso al procedimiento **de asilo y eliminar** la exigencia del **visado de tránsito** para las personas originarias de países en conflicto, como Siria, Palestina y Yemen.
 - Urge **cesar las devoluciones ilegales de personas** que llegan a **Ceuta y Melilla**, así como en el resto de fronteras europeas.
 - Urge **garantizar el respeto de los derechos humanos en frontera y el acceso y traslado a la península** desde Ceuta y Melilla y Canarias, paralizado en múltiples ocasiones, dejando a las personas en condiciones de extrema vulnerabilidad.
 - Urge un reparto **coherente y responsable en las CCAA** para que las personas no se queden en situaciones precarias en la Frontera Sur.
 - Urge que **las instituciones vascas amplíen recursos y den cabida a todas las personas varadas en la frontera de Irún**.
- Reivindicamos una **política de asilo que no deje al 95% de las personas solicitantes sin protección internacional**.
 - Urge la **búsqueda e implementación de nuevas vías de regularización extraordinaria** que permita a las personas migrantes y solicitantes de asilo denegadas acceder a un estatus legal regular.
 - Urge un estudio individualizado de los casos que garantice y **respete el derecho a la protección internacional sin discriminar a nacionales de países cuyas solicitudes están siendo sistemáticamente denegadas, como es el caso de Colombia**.
- Reivindicamos que los portavoces políticos se involucren de manera firme contra los **discursos racistas y xenófobos** para favorecer la empatía, convivencia y la cultura de paz.

Izan gaitezen babes: bide seguruak eta legezkoak orain

Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna da gaur.

Premiazkoa da gogora ekartzea badela arazo bat, guztiok gainditu behar duguna baina guztioi berdin eragiten ez duguna: alegia, **COVID-19aren** pandemiak izan duen **inpaktu larriaz** ari gara; izan ere, **areagotu egin ditu desparekotasunak, pobrezia, arrazakeria eta xenofobia, eta gogortu egin ditu mugak ixteko eta militarizatzeko politikak.** Nazioarteko babesa behar duten pertsona asko eta asko harrapatuta geratzen ari dira jatorrizko eremuetan, hau da, bizitza arriskuan duten tokietan, edota bestela, igarobide diren guneeetan, oso baldintza larrietan. Pertsona askok galdu dute bizia Europara etortzeko bidean, eta gehiagok galduko dute oraindik, baldin eta bide seguruak eta legezkoak ahalbidetzen ez badira.

Igarotze irregularrak arriskutsuak dira, eta horrek are arriskutsuagoa egiten du bidaia pertsona horietako askorentzat, pertsonen trafiko eta salerosketako sareen esku geratzen baitira, sexu-esplotaziorako. Bide seguruak eta legezkoak falta direnez, emakumeek indarkeria handia jasaten dute beren gorputzetan; bidesari hori ordaindu behar dute, aurrera egin ahal izateko.

Mediterraneoa munduko mugarik hilgarrienetako bat da oraindik ere. EBk Afrikako iparraldeko mugetan egiten duen kontrol hertsia dela-eta, **biderik arriskutsuena berraktibatu da**: joan den urtean Europara itsasoz iritsi zen 4 lagunetik 1 Kanarietatik etorri zen. 850 hildako erregistratu dira dagoeneko. Artxipelagora heltzea lortu zuten askok prekarietate-baldintza larrietan eman dituzte hilabeteak. Azken asteetan hasi dira arintzen penintsularako lekualdaketak, ez lehenago.

Prekarietatea eta giza eskubideen zapalketa oso larria da **Hegoaldeko Mugan** ere. Urtebetez etorrerak nabarmen gutxitu ostean, Ceutara 8.000 lagun sartu ziren bat-batean, Marokoko gobernuak animatuta, eta horrek agerian jartzen du nola erabiltzen diren **migratzaileak eta errefuxiatuak** -helduak eta haurrak- interes politikoen eta merkataritzako interesen zerbitzura.

Joan den urtean, **80.000 lagunek** (2019an baino % 25 gutxiagok) **eskatu zuten nazioarteko babesa Espainiako estatuan**. Ia erdiak, % 47, emakumeak izan ziren. **3.085** lagunek eskatu zuten nazioarteko babesa **Euskadin**, 2019an baino % 36 gutxiagok.

Erantzun gehienak ezezkoak izan ziren berriro ere; onartze-tasa Europako batezbestekoaren oso azpitik egon zen: **errefuxiatuen % 95i ukatu egin zitzaion asilo-eskaera**.

Asiloa ukatzeko politika sistematikoaren ondorioz, eta gizarte-egoera eta lan-egoera direla-eta, migratzaileek eta asilo-eskatzaileek **Euskadiren eta Frantziaren arteko muga** hautatzen dute bidea iparralderantz egiten jarraitzeko, beren migrazio-proiektua Europako beste herrialde batzuetan betetzeko itxaropenaz. Lehorreko mugetan profil etnikoa ardatz hartuta egiten diren kontrolak direla-eta —horrek zirkulazio askeari buruzko itunak urratzen ditu— eta kontrol horiek eragiten duten beldurra dela-eta, zenbaitek Bidasoa **igerian** zeharkatzeko erabakia hartzen dute, eta **erabaki hori oso arriskutsua da: aurten bi lagun hil dira jada horrela**.

Galdutako bizitza horiengatik guztiengatik, ez aurrera ez atzera egin ezinik harrapatuta geratutako pertsonengatik, ilegalki itzularazitakoengatik eta gizarte-bazterketako egoerak sufritzen dituztenengatik,

ALDARRIKAPEN HAUEK EGITEN DITUGU:

- Aldarrikatzen dugu **mundu mailako pandemia ez dadila bilakatu arrazoi bat** gehiago **mugen militarizazioa** justifikatzeko.
 - Premiazkoa da **herrialde hartzaileen interes ekonomikoen zerbitzura dagoen muga-politika** amaitzea, pertsona asko uzten baititu harrapatuta jatorrizko herrialdeetan nahiz iragaitzazkoetan; haien giza eskubideak errespetatzen ez diren lekuetan, hain zuzen.
 - Premiazkoa da **migratzaileak eta errefuxiatuak erabiltzeari uztea**, presio politikoa egiteko tresna gisa erabiltzen baitira.
- Aldarrikatzen dugu **pertsona migratzaileak eta errefuxiatuak Espainiara edo Euskadira iritsi ahal izatea**, beren bizitza arriskuan jarri gabe.
 - Premiazkoa da asilo-prozedurara heltzeko **bide legalak eta seguruak areagotzea** eta **igarotze-bisaren eskakizuna kentzea**, gatazkan dauden herrialdeetatik datozen pertsonentzat, hala nola Siriatik, Palestinatik eta Yemendik datozenentzat.
 - Premiazkoa da **Ceutara eta Melillara** iristen diren **pertsonen legez kanpoko kanporatzeak etetea**, baita Europako gainerako mugetan ere.
 - Premiazkoa da **mugan giza eskubideak errespetatzen direla bermatzea**, bai eta pertsonak Melillatik eta Kanarietatik **penintsulara sartzea eta lekualdatzea** ere, askotan eten baita prozesu hori, eta hala, muturreko zaugarritasun-egoeran utzi dira pertsonak.
 - Premiazkoa da **autonomia-erkidegoetan banaketa koherentea eta arduratsua egitea**, pertsonak ez daitezen geratu egoera prekarioan Hegoaldeko Mugan.
 - Premiazkoa da **euskal erakundeek baliabideak areagotzea eta Irungo mugan geratutako pertsona guztiak hartzea**.
- **Asilo-politika berri bat** aldarrikatzen dugu, **eskatzaileen % 95 nazioarteko babesik gabe utziko ez duena**.
 - Premiazkoa da **aparteko erregularizazio-bide berriak bilatzea eta abian jartzea**, asilo-eskaera ukatu zaien migratzaileek lege-estatus erregular bat lortu ahal izateko.
 - Premiazkoa da kasuak banan-banan aztertzea, **nazioarteko babesak izateko eskubidea bermatu eta errespetatu dadin, sistematikoki ukatuak izaten ari diren herrialdeetako pertsonak (Kolonbiakoak, adibidez) ez diskriminatzeko**.
- Aldarrikatzen dugu ordezkari politikoak **diskurtso arrazista eta xenofobo**en aurka sendo ager daitezela, horrela enpatia, bizikidetzeta eta bakearen kultura bultzatzeko.

- Amnistía Internacional
- Asociación Matiz
- Bake-Ekintza Antimilitarista
- Bigite Elkartea
- Caminamos para crecer
- CEAR-Euskadi
- Comisión de la Verdad Colombia - Nodo Euskadi
- Darkum Elkartea
- Denon Elkartea
- EAPN Euskadi
- EIPE-ZAIE Elkartea
- Erletxe
- Famek Elkartea
- Fundación Ellacuria
- Fundación Gizakia
- GOT
- Harresiak Apurtuz
- Hiritarron Harrera Sarea
- Hotz Zarautz
- Irungo Harrera Sarea
- Kolore Guztiak
- LAB
- Liga de Mujeres Saharais en Euskadi
- Mulisol
- Nos unimos - Unissons nous
- OEE Araba
- OEE Bizkaia
- OEE Gipuzkoa
- Oxfam
- Regularizaciónya Bizkaia
- SMH
- Sareak Josten
- SOS Racismo Bizkaia
- SOS Racismo Gipuzkoa
- Zaporeak